

YA VIENE LA PACHANGA, ME VOY EN LA PACHANGA

Paco Ruiz Berrozpe daukagu gaur gurekin. Egun 82 urte ditu, eta Errenteria, Lezo eta Donibane artean hasi zen garraio-publikoan.

G.- Noiz hasi zinen Errenterian, Lezo eta Donibane arteko garraio publikoan?

E.- 1962an edo.

G.- Gogoan al duzu zer ibilgailurekin hasi ziren?

E.- DODGE amerikar batekin, gasolinaz ibiltzen zena. Berehala jarri genion gasoilezkoa, ordea, gasolinazkoarekin ez baitzegoen konturik. Bigarren eskukoa hartu genuen, Madrilen subastan. Berrehun eta berrogeita hamar mila pezeta pagatu nuen, dirua zen orduan. Denbora gutxira, ordea, SCANIA ere erosi nuen, bigarren eskukoa, bi autobus eskatzen zidaten eta zerbitzua emateko.



G.- Zenbat kostatzen zen orduan Errenteriatik Lezorako joan etorria?

E.- 1,20 pezeta.

G.- Gaurko bidetik, Jaizkibel hiribidetik, alegia, ez zen joaten orduan, ala?

E.- Ez. Bide zaharrekin sartu eta plazaraino joaten ginen aurrena, eta Kale Nagusian barrera, juxtu-juxtu, hurrena. Jaizkibel hiribidetik barrera zubitxon sartu gero eta Kale Nagusira etortzen ginen berriz ere, eta Donibanera handik.

G.- Ba al dakizu zergatik esaten zioten La Pachanga?

E.- Ez dakit zergatik, jendeak jarri zion izena eta hala ezagutzen zituzten autobusak.

G.- Ibili duzu zuk autobusik?

E.- Bai, 1967ra arte ibili nuen nik autobusa. Orduan bete nituen 65 urte eta jubilazioa hartu nuen.

G.- Ba al daukazu pasadizoren bat, istripuren bat edo, kontatzeko modukorik?

E.- Kontatzeko modukorik ez daukat gogoan. Balkoiak marraskatzen genituela besterik ez; kaleak, izan ere, arrunt estuak ziren orduan. Jaizkibel hiribidetik hasi ginenean hobeto ibiltzen ginen.

G. Lezo-Donostia zerbitzua eskuratu zenuenean ez al zenuen pentsatu Lezotik Hondarribi eta Irun bitartekoa ere hartzea? Ondo etorriko bailitzateke zerbitzu hori Lezokoontzat.

E. Ari naiz bideak egiten Hondarribi-Donostia zerbitzua hartzeko. Hura lortutakoan, beharbada...

G. Zenbat autobus daukazue?

E. Orain 11 dauzkagu, Oiartzungoak eta Errenteriko urbanoak kontatuz gero.

G. Zenbat balio du autobusak?

E. 26 milioi.

Elkarrizketa bukatu ondoren, semearen esku utzita daukala guztia esan dit Pacok, eta bidaiariak diren bitartean zerbitzuak ere izango direla.

J.L. Egia

